

LELO KANTZOA



(ZATIA)

¿Zer gertatzen ote da Euskaldun lurrean?
Jendea motel dabill minduren mendean!

Aspaldi onetan
kopet guzietan
laño beltzak dabilta.... negar begiyetan!

Ez da soñurik iñon, danzarikan ere ez;
eztarriyak mutuak, far algarak iges!

Zerbait gertatzen da,
eta pisua da
orrela Kantabriya bildurtzen duana.

Neguko elur gañian badator ekaitza,
laster datoz ujolak aitzetikan aitzza,

guzia urraturik,
guzia eramanik,
olatu beltz artian guzia ondaturik!

Orrela Eguzki aldetik datozen jendeak
dijoaz arrapatzen goyak eta beak!

Beti aurreratzen,
beti zabaldutzen,
bide mutur guziali berentzat artutzen!

Arrabiyaz ta lotsaz Kantabriyatarrak
Guda kantzoa jo ta joan dirade azkarrek.
¡..Joan!. ¿baña.... zertako?
Geyenak galtzeko,
Euskal bakoitzarentzat berreun diralaka

¡Gero, gaitz bat beñere ez dator bakarrik!
Beti dakar beste bat berekin atzetik!
Ori gertatzen da
orain ere.... bada
Lelok echea uzteko modurikan ez da

¡Et' ez bildurrogatik! Ezagutzen ez du!
Bakarrik, Erromarrak ikaratzen ditu!
Gogorra besua,
argiya burua,
aren atzetik beti garaya dijua.

Kantabroen Buru da, naiz izan gaztia,
amak aurra bezela guziak maitia:
Aitor anziñako
izantzan ezkerro,
ezta iñor mendiyetan izan maitiago!

Baña ¡ai! Lengo gudatik etorri zanian
Dola sartu zitzayon biotz biotzian!
Oso choraturik,
errayak urturik,
iñork atera ezindu Doloren ondotik.

Alferrikan mutillak oroitzian nola
Lelorekin etsaya puskatzen zutela,
nai luteke ekarri
beren Agintari,
ta ala eskatzen diote beren aidiai.

Orregatik askotan bere Erritarrak
bialdu dizkiote beren aide zarrak,

erregu egiteko,
andik irtetzeko
Sorterriko Burutza len-bait-len jartzeko.

Bañan ez du sinisten Erromar sarrera,
gezurra dalaustedu beren esaera.
Itz egin ezkerro
Dolachok, ez dago
aide ta adiskederik arentzat geiago.

¿Zein da baña Dola ori, orrela alduena
ichutu Euskal-erriko bururik onena?
Iñorchok ez daki,
ez nondik dan jaiki,
ez aita ta amarikan ote duen euki.

.....
.....
.....

JUAN V. ARAQUISTAIN.

